



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 6a

61. ZK.

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, greba mugagabeen dauden Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazkari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egin (3. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den deitu aldeko batzordea LOMCE-Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko 8/2013 Lege Organikoaren aurkako konstituziokontarakotasun errekurtsio ustezko edo balizko bat jartzeko aukera gauzatu aitzin, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (4. or.).
- Galdera, jakiteko zer datutan oinarritzen den Nafarroako Gobernuak lehendakaria Nafarroan krisia bukatu dela baieztatzeko, Roberto Jiménez Alli jaunak egin (5. or.).
- Galdera, ETBren emisioak LTD bidez hartzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (5. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena.

2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina –azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia– aldatzen duen lege proposamena Diputatuen Kongresuan defendatu behar dituzten foru parlamentarien inguruko proposamenak egin dituzte Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, zeinak ekimena aurkeztu baitzuen, eta Eledunen Batzarrak. Horri dagokionez, eta Konstituzioaren 87.2 artikuluan, Erregelamenduaren 205. artikuluan eta Mahaiaren 2005eko ekainaren 6ko Erabakiaren bidez onetsiriko arauetan xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Foru parlamentari hauek izendatzea Diputatuen Kongresuan defendatzeko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina –azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia– aldatzen duen lege proposamena:

Roberto Jiménez Alli jauna.

Sergio Sayas López jauna.

Bakartxo Ruiz Jaso andrea.

2. Erabaki hau Diputatuen Kongresuko Mahairi igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, greba mugagabeen dauden Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazkari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, greba mugagabeen dauden Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek gaurkotasun

handiko honako galdera hau egin du, Gizarte Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako Departamentuak zer egin du eta zer egin behar du greba mugagabeen dauden Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazka konpontzeko? Gatazka zer ondorio izaten ari da erabiltzaileei egokitutako zerbitzuan? Zehapenik ezarriko al zaie legedia –kasu honetan, hitzarmena– betetzen ez duten enpresei? Baloratu al duzue berriz ere publiko bihurtzea titulartasun publiko eta kudeaketa pribatizatukoak diren zentro horien kudeaketa?

Iruñean, 2014ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakiteko zergatik ez den deitu alde biko batzordea LOMCE-Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko 8/2013 Lege Organikoaren aurkako konstituziokontraotasun errekurtsu ustezko edo balizko bat jartzeko aukera gauzatu aitzin.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakiteko zergatik ez den deitu alde biko batzordea LOMCE-Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko 8/2013 Lege Organikoaren aurkako konstituziokontraotasun errekurtsu ustezko edo balizko bat jartzeko aukera gauzatu aitzin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasan handiko galdera hau aurkeztu du, maiatzaren 8ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andrearekin ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du deitu alde biko batzordea, LOMCE-Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko 8/2013 Lege Organikoaren aurkako konstituziokontraotasun errekurtsu ustezko edo balizko bat jartzeko aukera gauzatu aitzin, hartara epea luzatzea ahalbidetuz, jakinda abian direla horren inguruko zuzemenak? Eta zergatik ez du eskumen-gatazka positibo bat planteatu ere egin, Konstituzio Auzitegia arautzen duen Legearen 63. artikulua oinarri?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, jakiteko zer datutan oinarritzen den Nafarroako Gobernuko lehendakaria Nafarroan krisia bukatu dela baieztatzeko.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer datutan oinarritzen den Nafarroako Gobernuko lehendakaria Nafarroan krisia bukatu dela baieztatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den maiatzaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria zer datutan oinarritzen da Nafarroan krisia bukatu dela baieztatzeko?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, ETBren emisioak LTD bidez hartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ETBren emisioak LTD bidez hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den maiatzaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak noiz ahalbidetuko die nafarrei ETBren LTD bidezko emisioak libreki hartu ahal izatea?

Iruñean, maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

